


MarraziOak



2018ko irailaren 13tik 18ra, Komikigunean
Galtzagorri Elkarte
galtzagorri@galtzagorri.eus
943471487

MARRAZIOAK X

MEMORIAREN MARRETAN BARRENA

Norbere espaziotik, norbere gorputzetik

ILUSTRAZIO TAILERRA

IGNASI BLANCH eta HARKAITZ CANO

ZER:

Memoriaren gaia pil-pilean dago aspaldion gure artean. Ilustratzaileen mundua ezin gera daiteke kezka horretatik aparte. Ez gara, gure kasuan, komunitate baten memoria kolektiboaz ari, baizik eta bakoitzaren oroitzapen besterenezinei jarri beharko geniekeen arretaz eta arreta hori modu sortzailean erabiltzeko aukeraz.

Gauzak horrela, 2018ko Marrazioak ikastaro trinkoan norbere gorputzetik eta norbere inguru intimotik abiatuz, ni-aren indarra eta gertuko memoria –letra ttipiz idatzitakoa– lantzeko erronkaren aurrean jarriko gara. **Norbere espazio gertukoenetik, norbere gorputzetik, autobiografiatik eta keinuetatik abiatuta, sortzen diren irudien sekuentziazioan arreta berezia jarriko dugu.**

Memoria da, beraz, hausnarketarako gaia. Eta sekuentziazioa, hausnarketa horri aurre egiteko teknika. Ez baita gauza bera zerbait gogoratzea eta gogoratzen dugun hori egituratu eta artikulatzea. **Egiturarik ezean, antzua suerta daiteke memoria. Eta marraztea ere, egituratzeko modu bat da.** Sekuentziazioaz ari garenean, une jakin batzuk *izozteaz* ari gara, film batean garrantzitsua dena are garrantzitsuagoa baita liburu ilustratu batean, irudi sorta ttipi baten bidez ebatzi behar duenean marrazkilariak kontatu nahi duen istorioa

METODOLOGIA:

2018ko MarraziOak-en gai nagusiari loturiko ariketa praktikoak azalpen teorikoekin tartekatuko dira. Eta horrez gain, film, liburu eta irudiak ere erakutsiko dira.

Ikasleek formazio saioetan azalduko diren gaiei loturiko erantzun grafiko berehalakoak proposatu beharko dituzte.

Aurtengo edizioaren helburua parte-hartzaileek gertuko memoria, letra txikiz idatzitako hori oinarri hartu, horren inguruan hausnartu eta sekuentziazioa lantzea izango da. Hortaz, ikasleei euren bizitzako lekuak, argazkiak, objektuak aipatzea eta ekartzea eskatuko zaie, haietatik abiatuta barrurantz (nork bere buruari) eta atzerantz (denborari) egin diezaion zintzoki aurre. Ikasle bakoitzak egitasmo pertsonal/partikular bat garatuko du eta inplikazio berezi bat eskatuko zaio, ondorioz. Abiapuntu horretatik, guztion artean mundu intimo hori irakurle orokorrarentzat interesgarri izan daitekeen moduan nola eraldatu daitekeen pentsatzen saiatuko gara. **Intimotik hasita, unibertsalerantz.**

IRAKASLEAK:

Ignasi Blanch
Harkaitz Cano

NOIZ ETA NON:

2018ko irailaren 13tik 18ra, Komikigunean (Errege-Erregina Katolikoen kalea, 16. 20006, Donostia).

Aurtengo ordutegia eta saioak honela banatuko dira:

Irailaren 13 eta 14an: 9:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

Irailaren 15ean: 9:00etatik 14:00etara.

Irailaren 16an ez da tailerrik izango.

Irailaren 17 eta 18an: 9:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

Asistentzia derrigorrezkoa da: parte hartzaileek tailerraren saio guztietara etortzeko gai izan eta horretarako konpromisoa hartu behar dute.

NORENTZAT:

Gehienez 12 irudigilek hartuko dute parte.

Parte hartzeko baldintza orokorrak:

- Parte hartzaileek Euskal Herrikoak izan behar dute.
- Galtzagorri Elkarteko bazkide izatea baloratuko da.
- Euskadiko Ilustratzaileen Elkarteko bazkide izatea ere kontuan izango da.
- Parte hartzaileek ez dute zertan lan argitaraturik izan behar.

ESKAINZA:

Topaketa hauetan formazioa doan eskainiko zaie irakasleek aukeratzen dituzten 12 lagunei. Guztira, 37 orduko tailer praktikoa egiteko beka bana eskuratuko dute.

IZEN EMATEA:

● **Ilustratzaile bakoitzak bere 5 ilustrazio bidali beharko ditu: argitaratuak edo ez, bere ustetan bere lana hobekien jaso edo biltzen duten 5 irudiak.**

● Horrez gain, honako dokumentazioa igorri beharko du:

- Curriculuma
- NANaren kopia bat
- Posta elektronikoaren helbidea
- Telefono zenbakia

Dokumentazioa wetransfer bidez bidali beharko du administrazioa@galtzagorri.eus –era.

EPEAK:

Eskaerak aurkezteko azken eguna: **2018ko uztailaren 6a** izango da.
Aukeratutakoei 2018ko uztailaren 23rako erantzungo zaie.

ANTOLATZAILEAK:

Galtzagorri Elkartea
Gipuzkoako Foru Aldundia
Komikigunea

INFORMAZIOA ETA ARGIBIDEAK:

943471487

www.galtzagorri.eus

galtzagorri@galtzagorri.eus